

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LEHENDAKARITZA

### 4197

*17/2022 DEKRETUA, 2022ko irailaren 19koa, lehendakariarena, Lan Harremanen Kontseiluko zenbait kide modu ezohikoan aldatzeko dena.*

Lan Harremanen Kontseiluari buruzko otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 5. artikulua arabera, Lehendakariak du sindikatuek eta enpresarien erakundeek Lan Harremanen Kontseiluan dituzten kideak izendatzeko eskumena, sindikatuek eta enpresarien erakundeek beren ordezkariak aukeratu ondoren. Bestalde, lege horren 6. artikulua arabera, kontseiluko kideen agintaldia bi urterako izango da; horrek ez du esan nahi, ordea, berriro ere aukeratu ezin direnik.

Lehendakariaren urriaren 19ko 40/2021 Dekretuaren bitartez, Lan Harremanen Kontseiluko oraingo kideak izendatu ziren.

Bestalde, aipatutako lege horren 4. artikulua arautzen du zein den sindikatu edo enpresarien erakunde eta konfederazioetakoren batek edo batzuek Kontseiluaren bilerak behin eta berriz huts egitearen ondorioa, eta urriaren 29ko 434/2013 Dekretuaren 7. artikulua arautzen du horrelakoe-tan zein den zenbait kide modu ezohikoan aldatzeko prozedura. Otsailaren 23ko 4/2012 Legea garatu zuen dekretu horrek.

Dekretu horren 7.6 artikulua ezarritakoari jarraikiz, zenbait kide modu ezohikoan aldatzeko prozedura amaitu ondoren, Kontseiluaren buruak kargutik kentzeko eta izendatzeko proposamena helarazi dio Lehendakariari, egindako alegazioekin batera.

Urriaren 29ko 434/2013 Dekretuaren 7.7 artikulua ezarritakoaren arabera, kargutik kendutako pertsonen agintaldia amaitzen den egunean bertan amaituko da izendatutako agintaldia.

Ondorioz, hauxe

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Kargutik kentzea Lan Harremanen Kontseiluko kide hauek –ELA erakunde sindi-kala ordezkatzeko izendatu ziren–:

Titularrak:

Pello Igeregi Santamaría.

Haimar Kortabarria Arenaza.

Ane Miren Zelaia Arieta-Araunabeña.

Ordezkoak:

M.<sup>a</sup> Cruz Elkoro Zengotitabengoa.

Igor Eizagirre Alza.

Unai Martínez Azarola.

2022ko irailaren 28a, asteazkena

2. artikulua.– Lan Harremanen Kontseiluko kide izendatzea honako pertsona hauek:

– Euskadiko Langile Komisioak / Confederación Sindical de Comisiones Obreras de Euskadi (CC.OO. de Euskadi) ordezkatzeko:

Titularra:

Estibaliz Montero Mendoza,

Ordezkoak:

Juan Luis López Díaz.

Arantza Martínez Tobalina.

– Unión General de Trabajadores de Euskadi (UGT de Euskadi) sindikatua ordezkatzeko:

Titularra:

Tomás Roderó Briongos.

Ordezkoak:

Xuria Arza Vélez.

Arantza Niño Núñez.

3. artikulua.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko irailaren 19an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.